


Vitoria-Gasteizko ur kontsumoaren datuak 2021ean

Arakako
EUA



199 litro
pertsonako
eta
eguneko*

18.456.952 m³
entregatu
zaizkio banaketa
sareari


*Hiriko uraren erabilera
guztietz dagokie:





%90,3 neurtzen edo kontrolatzen da

Etxeko kontsumoa pandemiaren aurreko zifretara itzultzen ari da

108,7 litro
pertsonako
eta
eguneko



Litro pertsonako eta eguneko



236,4 litro
etxebizitzako
eta eguneko



Etxeen **%50ek 186 litro baino gutxiago** kontsumitzen dute eguneko
Etxeen **%10ek baino ez dute 400 litro baino** gehiago kontsumitzen eguneko

AMVISAREN hiruhilekoko fakturan ikusi dezakezu zein den zure eguneko batez besteko kontsumoa litrotan

AKUAL aurkeztu da

Martxoaren 22an, Uraren Munduko Eguna dela eta, **AKUAL** aurkeztu zen, Goiuri jauregian (Villasuso). **Ur eta saneamenduen arloko garapenerako lankidetzaren programa** bat da, eta partaideak dira lankidetzako euskal erakunde publikoak eta El Salvador, Costa Rica eta Euskadiko uraren arloko eragileak, horien artean AMVISA eta Vitoria-Gasteizko Udala.

2018-2021 lehen edizioan lortutako emaitza positiboaren ondoren –azpiegiturak eraiki ziren El Salvadorreko Anamoros eta Yucuaiquin udalerrietan, eta lankidetzaren tekniko espezializatuko zenbait topaketa egin ziren–, AKUALen bigarren edizioak, 2021-2024 aldiran, 400 profesionalen gaitasuna indartzea espero du, eta bi milioi euro baino gehiago mobilizatzea 5.000 pertsonari baino gehiagori mesede egingo dieten interbentzioetan.



Agua y Saneamiento
Cooperación
Centroamérica-Euskadi

Ura eta Saneamendua
Ertornerria-Euskadi
Lankidetzaren

Informazio gehiago: www.akual.org

Horrez gain, **AMVISAKO Administrazio Kontseiluak 2022. urtean Garapenerako Lankidetzaren arloan hainbat ekarpen banatzea onartu du:**

- 50.000 €, AKUAL programarako.
- 50.000 €, Arabako Larrialdi Funtserako.
- 200.000 €, Vitoria-Gasteizko urteko dirulaguntzen deialdirako, Garapenerako Lankidetzaren esparruan, Uraren eta Saneamenduen atalean.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.

Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org